



Hau da aste honetako euskararen pilula!

"*rescisión*" euskaraz, nola?

Rescisión > hutsaltze, hutsalketa

Horrela definitu zen, 2007ko Hiztegi Terminologikoan, **rescisión** de contrato > kontratua **hutsaltze**:

Baliozkotasunez egindako kontratua baliogabetzea, alderdietakoren batentzat bidezkoak ez diren ondoreak dituela arrazoitzat hartuta (Espainiako Kode Zibileko 1290. artikulua eta hurrengoak).

Bestalde, **rescisión** de sentencia firme > epai irmoa **hutsaltze**, epai irmoaren **hutsalketa**

ADIBIDE BATZUK

- “**Rescisión** de sentencia firme a instancias del rebelde. Casos en que procede” > “Epai irmoa **hutsaltze**a auzi-iheslariaren eskariz. Zer kasutan den bidezkoa”
- “Cuando se declare no haber lugar a la **rescisión** solicitada por el litigante condenado en rebeldía, se impondrán a éste todas las costas del procedimiento” > “Deklaratzen denean ez dela onartzen auzi-ihesean kondenatutako auzilariak eskatutako **hutsalketa**, auzilari horri ezarriko zaizkio prozeduraren kostu guztiak”
- “**rescisión** de contrato y reclamación de daños y perjuicios” > “kontratua **hutsaltze**a eta kalte-galerak erreklamatzeari”

ITURRIA

- [Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak](#)
- Epaibar
- [Euskalterm](#)